

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KONTRASTAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Kontrastako Escuela Vieja izeneko eraikina enkante publiko bidez besterentzeko lizitazioa (kale nagusiko 2. zenbakiko 941. partzela)

Kontzeju irekiaren 2026ko urtarrilaren 10eko bileran, onetsi egin zen Kontrastako Administrazio Batzarraren ondare jabetzako eraikinaren besterentzea enkante publikoan jartzeko administrazio klausulen behin betiko agiria.

Eraikina kokatuta dagoen lurzati hori Kontrasta hiribilduko hiri lurzoru finkatuan dago, eraikin zona kontzentratuan (OD-2 ordenantza), Haranako Udalaren plangintzako indarreko arau subsidiarioen arabera.

Eraikin hau GIC2 gisa katalogatuta dago – I. taldea, 2. kategoria – balio garrantzizkoa, hiribil-duaren perimetroko harresiaren horma atalaren parte delako kanpoko fatxadan eta hirigunearen barruan egoteagatik (Kale Nagusia 2, 56 01 0941 00 0001 0001 DW – 0002 FW – 0003 HW katastro erreferentziak).

Lurzatia Kontrastako Administrazio Batzarrarena da, 317 m²-ko azalera du, hiru solairuko 216,16 + 226,66 + 205,65 m²-ko azalera eraikia eta aurreko patioa 111,35 m²-koa.

Lizitazioa.

1. Erakunde adjudikatzaila: Kontrastako administrazio batzarra.

2. Esleitzeko era: enkantea.

3. Informazioa eta dokumentazioa lortzea (klausulen agiria, partzela zedula, BEPB...) Kontrastako Administrazio Batzarra, San Salvador kalea 1, PK: 01117, Kontrasta, Harana - Harana, kontrasta@ja.araba.eus.

4. Eskaintzak edo eskabideak aurkezteko lekua: Haranako Udalaren egoitza, Entzia etorbidea 52, 01117 Alda, avarana.udala@ayto.araba.eus. Epe muga: 30 egun baliodun ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera. Aipatutako helbidean posta arruntez edo elektronikoz aurkeztu ahal da.

5. Preziorik altuena (esleipenerako irizpide bakarra).

Eskaintzak irekitzeko, aldez aurretik jakinarazi beharko zaie eskaintzak aurkeztu dituztenei.

Kontrasta, 2026ko martxoaren 2a

Lehendakaria

ÁLVARO LÓPEZ DE ARBINA IBÁÑEZ